

PYIRENEFP PROIEKTUA

2017-18 ikasturtean **Fadura Institutoko Haur Hezkuntza** zikloko ikasle batek bere praktikaldiaren zati bat *Hendaiako Gure ikastolan* ikastetxean egin du **PyreneFP proiektua eta POCTEFA** ren laguntzarekin.

Proiektu honek mugako alde bietako herrialdeak konektatzea du helburua; ikasleak, irakasleak eta beste langileak mugitzen. Gure Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Okzitania eta Akitania berria lurraldeak.



Praktikaldia Frantzian ezin da izan 2 hilabete baino gehiago, horregaitik Apirilaren 23 eta Maiatzak 31 bitartean luzatu da Ikastolako 2-3 *urteko geletan*. Ikastolako instruktoreak *Garbiñe Intxausti eta Sandra Serrano* izan dira, eta Fadura institutotik *Miren Cortinak* (Haur Hezkuntza zikloko irakasleak) egin ditu praktiken jarraipena. Hiru bisita egin dira ikastolara.



Eskerrean Miren Cortina, erdian Garbiñe eta eskubian Sandra.



Beka honek *bidaiak, alojamendua eta mantenua* hartzen du barne, baita seguro bat ere. Ikaslea eta Haur hezkuntzako mintegiaren artean bilatu da ikastola eta ikasleak berak etxea topa zuen.

Oso praktikaldi baliogarria izan da *Miren Martin* ikaslearen hitzetan eta ikastolako tutoreek ere goraiatu dute gure ikaslearen lana eta laguntza. Ikasleak egin duen keja bakarra izan da laburregia egin zaiola...



Fadurako ikaslea Miren Martin ikastolako umeekin.

Kudeaketa guztia egiteko *Mari Jose Gonzalez*-en laguntzarekin kontatu dugu Lakua aldetik.

Espero dugu proiektu honekin jarraitzea hurrengo ikasturteetan, ikastolako zuzendaria den *Maia Hoqui* andreak esan digu prest dagoela gure ikasleak hartzeko.

Hurrengorarte!